

URTEGIETAN ITOKO DA KARBONOA

Alemanian, lehortutako urtegiak biziberritzen ari dira berotze globalari aurre egiteko neurri gisa

Alemania iparraldeko landen erdian galduta, ihi mordo batez osatutako mara bat hedatzen da. Zurtoin luzeko uretako landare horiek Europako zingirarik handienetako baten presentzia adierazten dute, azpian daukan ura ezkutuan badago ere.

Meline Brendel biologoa botak jantzita dabil uretatik, bi metro inguru neurtzen dituzten kanaberen artetik, begirada eskuetan daukan GPSan finkatuta daramala. Duela lau urte zelai bat baino ez zegoen tokian urmaela dago gaur egun, eta taketak jartzen ditu bertan Brendelek, horien arabera ikusten duelako puntu bakoitzeko ur maila «baxua», «ertaina» edo «altua» den, ondoren apuntatzeko.

10 hektareako azalera dauka zingirak, eta Malchin hiritik oso gertu dago. Mende luzez lehortu izan dute, zohikatza ateratzeko, zerealak landatzeko edo animaliak hazteko. Antzera jokatu izan du Alemanian urtegien %98k, Greifswald Moor ikerketa-zentro espezializatuak zabalduetako informazioaren arabera. Alegia, herrialdeko zingira ia guztiak zelai bilakatu dituzte urte luzez.

Bene-benetako erregulatzailer klimatikoak izan daitezke zingirak, zohikatzari esker. Lur azpian pilatuta geratzen den materia organiko hila da zohikatza, eta karbonoa gordetzeko gaitasuna dauka. Horrela, gainean daukan ur geruzari esker, gas kutsatzaileak airera ihes egitea eragozten du.

«Padurek luraren azalaren %3 hartzen dute, eta baso guztietan dagoen karbono dioxidoaren bikoitza dute. Karbono-hustubide erraldoi gisa jokatzen dute», azaldu du zientzialariak. Betiere, ur geruza mantendu bitartean.

Izan ere, urmaelak lehortuz gero, lurzorua atmosferako oxigenoarekin kontaktu zuzenean sartzen da eta lurretik irten ezinda egondako karbonoa askatzen da. Horrelakorik gertatzekotan, beldurtzeko moduko kutsatzaile bilaka daitezke zingirak.

«Eskualdean, lehortuta dauden edo lehortzen ari diren urmaelek garraioak baino CO2 gehiago isurtzen dute», adierazi du, kezkaz, Brendelek.

Urte baten buruan, lehortuta dagoen urtegi bateko hektarea batek denbora tarte berean 145.000 kilometro egiten dituen auto batek beste CO2 sordezake, Greifswald Moor zentroaren arabera.

Malchingo paduran, urpean zegoen zatian, zangak zulatu zituzten eta zintabelar landarearen haziak landatu zituzten. Gaur egun, anfibioak, hegaztiak, arrainak, armiarmak eta intsektuak bizi dira han, landareen bueltan.

NEKAZARIAK KONBENTZITU

Lezkek zurtoin oso sendoak dauzkate, eta neguero moztzen dituzte. Ondoren, etxebizitzetan isolatzaile termiko bezala erabil daitezke, besteak beste. Horrek nekazariei urmaelak aprobetxatzeko aukera ematen die, hauek lehortu beharrik gabe.

«Urtegien erabilerari “paludikultura” esaten zaio», azaldu

INGURUMENA / GAUR8

Urtegien ondoan pilatzen den lokatzak karbono dioxidoa xurgatzen duela ikusita, lehortuta zeuden zingirak berreskuratzen saiatzen ari dira Alemanian. Izan ere, ura dagoen bitartean kutsadura xurgatzen badute ere, lehortutakoan pilatutako CO2a askatu eta kutsatzaile handi bilakatzen dira.

Meline Brendel biologoa, Malchin hiritik gertu dagoen zingiran.
Paul NOLP | AFP

du Brendelek. «Ihiekin teilatuak eraiki daitezke eta lezkekin etxeak isolatu», gaineratu du. Hala ere, aitortu du urtegiatako ekoizpenari eman daiokeen irtenbide hori proiektu pilotu fasean dagoela oraindik.

Alemanian gobernuak klima-neutraltasuna lortu nahi du 2045erako. Helburu hori

lortzera bidean, 2022an 4.000 milioi euroko ekintza-plana abiarazi zuen, hemendik 2026ra artean «herrialdeko ekosistemen egoera orokorra hobetzeko». Planaren barnean, urtegiak berreskuratzea lehentasunen artean dago.

EUROPA OSOAN

Ildo beretik, Europako Parlamentuak Europar Batasuneko herrialdeek antzeko neurriak har ditzaten bultzatzeko lege bat onartu berri du. Lana ez da batere erraza, besteak beste, nekazariak konbentzitu behar dituztelako.

Lehortuta dauden zingira asko haiek nahita lehortutakoak dira, zelai bihurtu eta nekazaritza jardueretarako erabili ahal izateko.

Izan ere, Alemanian, eremu zingiratsuek herrialdearen



azaleraren %5 hartzen dute. Horrela, lehortutako zingirak berriz urez betetzeak nekazari-ek haien jarduerarako erabil- tzen duten eremua murriztea eragingo luke, eta askok ez du- te nahi.

Asmoa ez da «nekazariei be- ren soroak urtegi bihurtzea in- posatzea», baizik eta ulerta- raztea «garrantzitsua dela klimarako», eta, haien jarduna

Lehortuta dauden zingira asko nekazari eta abeltzainek nahita lehortutakoak dira, zelai bihurtu eta haien jarduerak aurrera ateratzeko erabili ahal izateko

Bene-benetako erregulatzailer klimatikoak izan daitezke zingirak, zohikatzari esker. Lur azpian pilatuta geratzen den materia organiko hilak karbonoa gordetzeko gaitasuna dauka



paludikulturara bideratuz ge- ro, horretaz «bizi daitezkeela», Brendelen arabera. Hau da, azaldu nahi diete jarduera al- daketa dela, ez murrizketa.

Aurretik dauzkaten oztopo- ak handiak direla aitortu du zientzialariak. Izan ere, neka- zariak konbentzitzea zailtzen duen beste faktore bat ere ba- dago: ustiapen mota hori ez dago nekazaritza jarduera be- zala aitortuta, eta, beraz, palu- dikulturaren jarduten dutenek ez dute nekazaritza biologi- koan dabiltzan nekazari-ek ja- sotzen dituzten dirulaguntzak eskatzeko eskubiderik.


EZ BATA, EZ BESTEA

Lorenz Kratzerrek erdibideko irtenbide bat aukeratu zuen duela hogeitun urte: ur maila ba- xua duten zingiretako abel- tzaintza estentsiboa, hain zu- zen ere. 64 urte dauzka eta bavariarra da. Udako egun be- roetan, Alemaniako hegoal- dean dagoen Freising udale- rrian, abeltzaintzarako erabiltzen dituen lur zingira- tsuetan dauden hogeitun bat behi limusin zuhaitz eta zuhaixken itzalaren bila ibiltzen dira, be- rotik babestu nahian.

Klima aldaketaren eragina- ren ondorioz lehortzen dira urmael asko, eta horregatik, «oso ona izango litzateke urte- giak berriz urez betetzea eta artzaintza gehiago sortzea», azaldu du Kratzerrek, berak aukeratutako bidea jarraitzeko gonbita luzatuz.

Abeltzainak ekoizten duen haragi organikoa zirkuitu labu- rrean saltzen du eta nekazari- tza eta urtegien babes- a batera- tzea posible dela frogatzen du.

«Ez dugu ikusten, baina kar- bonoak ihes egiten du lurre- tik», nabarmendu du Brende- lek. Mundu ideala amesten du, urtegi-rik lehortzen ez duena.



Sven Hannemann, kaltetutako haritzaren aurrean. Ina FASSBENDER | AFP

KEZKA, ALEMANIAKO SANSSOUCI PARKEAGATIK, KLIMA ALDAKETA DELA ETA

Alemaniako Potsdam hirian dagoen Sanssouci parkeko haritzik zaharrenak 600 urtez fenomeno meteorologiko oro gainditu zuen, baina ezin izan zien klima-aldaketaren ondorioei eutsi. Bi urteren buruan hilko dela dio Sven Hannemann parkearen kudeaketaren arduradunak.

«2018a urte lehorra izan zen, eta kolpe handia izan zen haritzarentzat», azaldu du Hannemannek. Ur faltaz haratago, kaprikornio txikiaren eta bitxi kakalardoaren etorrerak azken kolpea eman zion.

Intsektu horiek «cambium baskularra irensten dute», azalaren eta egurraren arteko geruza babeslea, eta hori gabe, «zuhaitzek ez dute bizirik irausten», azaldu du.

2017tik, parkeko 180 eta 300 zuhaitz artean hil dira urtero, ordura arte ohikoa zenaren hirukoitza. 2023 urte hezeagoa izan zen arren, lurzorua- ren hezetasuna urria da.

Sanssouci parkeko basoa «oso hutsik» dago, Hannemannen arabera. Izan ere, baso-estalduraren mailak nabarmen egin du behera azken urteetan, eta ondorioz, izpi ultramoreek errazago erretzen dituzte zuhaitzak.

Hildako espezi- menak saguzar edo intsektuen habitat izan daitezke hainbat urtez. Egurra bisitarientzat arriskutsua den punturaino usteltzen denean, moztu egin behar da.

Parkeko arduradunak arazo hau konpontzen saiatu ziren eskualde mediterraneoko zuhaitzak landatuz, beroarekiko erresistenteagoak zirenak. Hala ere, Hannemannek onartu du «hamarkadak» igaroko direla hildako espezieek utzitako hutsuneak zuhaitz indartsuago berriek bete baino lehen.